

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Ediktua, ordezeko bake epailea hautatzeko

Nik, Iratxe del Barco Murua Iruraiz-Gaunako Udaleko alkateak, hau jakinarazten dut:

Udalbatzaren egitekoa dela ordezeko bake epaile lanetarako hautagaiak izendatzea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. artikuluan eta hurrengoetan eta Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan xedatutakoaren arabera. Hamabost egun balioduneko epea dagoela, ediktu hau ALHAOn argitaratzen denetik, legezko baldintzak betetzen dituzten interesdunek eskaera egin dezaten udaleko erregistro orokorrean aurkeztuko duten instantzia bidez. Instantziarekin batera agiri hauek ere aurkeztuko dituzte:

1) NANaren fotokopia.

2) Erantzukizunpeko aitorten bat alderdi hauek jasoko dituen:

— Doluzko delituagatik zigortuta ez egotea (edo, hala badagokio, birgaitze onura jaso izana).

— Ez egotea doloazko delituagatik prozesatuta edo inputatuta.

— Eskubide zibil guztien jabe izatea.

— Espainiarra eta adinduna izatea, ez egotea ezgaituta fisiko edo psikikoki eginkizun judizialerako eta herri honetan biziko dela egiaztatzea, salbu eta Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salak besterik baimendu.

— Botere Judizialaren Lege Organikoak 389. artikulutik 397. artikulura bitartean ezarritako ezintasun, bateraezintasun edo debekuetariko bat ere ez izatea.

Zalantzarik egonez gero, alkateak aipatutako alderdi horiek ziurtatuko dituen agiria aurkeztea eskatu ahal izango du; horrek ez du baztertzeko bestelako erantzukizunak izatea.

Udalak hautagaitza aurkezten dutenei zuzenean jakinaraziko die zeintzuk diren kargu hori betetzeko ezinbesteko baldintzak eta ezin betetzeko ezgaitasun eta bateraezintasunak.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Azilu, 2026ko martxoaren 18a

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA